

Antzinara begira aurrera egiteko

Esku artean duzun liburua, irakurle, katebegi bat, urrats bat besterik ez da. Hainbat urtetako historia erakusteko behar dugun lan handiaren erdian ale bat. Ez da lehenengo emaitza baina bai gure historiaren arrastoaren atzetik hasi zirenen emaitzen berri ematen duen lehena. Izan ere, Aitor Iturbek horixe egin du, Lekeitioren iraganaz XIX. mendera arte idatzita dagoen guztia batu -eta zelan batu gainera!- eta denak batera jarri denok eskura izan ditzagun.

Batean eta bestean sakabanatuta zeuden kronikak, artikulak, irudiak eta abar lokalizatu, aztertu, transkripzioak alderatu eta akats ugariak zuzendu eta, azkenez, denak liburu honetan paratu.

Eta zergatik egin lan mardul hori Iturbek? Asko edo gutxi ezagutzen dugunok Aitor badakigu zelakoa den: zirina eta ekina. Buruan zerbait sartuz gero amaitu barik uzten ez dakiena eta, gainera, gauzak ondo egiten dakiena.

Liburu hau, baina, ez du Aitorrek ondu bere jakin-mina asetzeko bakarrik. Lan honek badu beste zergatik bat ere. Izan ere, 2025ean Lekeitiok, Lekeitioko hiribilduak, Maria Diaz Harokoarengandik hiri bihurtzeko agiria hartu zuenetik 700 urte beteko dira. Ez dira beteko zazpi mende Lekeitio sortu zenetik, baina bai gure herria beste bide baten jarri zenetik. Eta bide honek ekarri gaitu gauden lekura, neurri handi baten behintzat. Ez da ba edozein efemeride 6 urte barru beteko dena.

Ikusirik hori, Lekeitioko Udalak orain zortzi urte Ondare azpibatzerde bat eratu zuenean urtemuga horren gainean hausnartzen hasi ginen, uste baikenuen ospatu barik, ondo ospatu barik uzteko modukoa ez zela. Alboratu gabe data horren inguruan egin zitezkeen beste era bateko ekintzak, azpibatzerdean elkartzeko ginenok historia, artea, ondarea eta antzeko alorretan jarri genuen gure atentzioa, erabakiz zezena harrapa ez gintzan komenigarria zela 2025era bitartean genituen urteetan eginbeharrak prestatzen hastea. Tempus fugit! Uste genuen nekez egin genezakeela ezer onik, historia eta ondare arloan behintzat, ikerketa sakon eta seriorik barik. Horren emaitza dira orain arte atera ditugun Kurik aldizkariaren 3 zenbakiak eta orain esku artean duzun Iturberen liburua. Liburu honekin hasiera ematen zaio bilduma berri bati, Kresaletik bildumari, kresaletik sortu eta kresaletan bizi izan zen eta garen herria garelako, Eusebio Erkiagak idatzi zuen moduan:

*itsasaldean
lehor ertzean
urdin eta berde artean*

Izan bedi Aitorren liburua ondoren etorriko diren beste batzuen aitzindari eta ez dakigula inoiz gertatu Atea Portaleko probetan ekinean zebiltzan idiei gertatzen zitzaiena: *Nahi eta ezin!* Edo probetan bertan esaten den bezala *denbora aurrera eta harria geldirik.*

Aitorrek erein du bere hazia, ea bakarra ez den.



Idi probak *Portalian*
Manuel Garavillaren argazkia, XX. mende hasiera

Iñaki Goiogana Mendigurenek oparitu digun sarreratxo argigarriari pare bat ohartxo gehitu nahi dizkiot asko luzatu barik.

Akatsak dira, duda barik, *negozio* honetako mamu beltzak, eurokin hasiko naiz ba. Zezenari adarretatik kolpe behar zaio!

Liburu onetan ez dago akatsik esan zidan anaiak behin, hitzekin jolastuz. Liburu honetan badago akatsik, baina larriak ez diren artean... Alargun, ezkondu eta ortotipografiako akatsekin akabatzerik ez dagoen arren, gu inuzenteok, jo ta ke ibili gara azkenean ere konurtatzeko ez dagoela modurik. Nire erreinua zuzentzaile baten truke! Baina tira, akats horiekin bizi naiteke. Beste kontu bat da transkripzioekin gertatu zaidana.

Transkribatzea ez da erraza, horretarako ikasten da, baina optimista, gizajo, aukeratu nahi duzuen hitza, pentsatu nuen lekeitiar batek bilbotar baten antzean edozer burutu zezakeela. A zelako gerra eman didaten testuok! Jakin izan banu!

Gauza da, Paleografiaren unibertsoan eskola ezberdinak daudela, eta eskola beste -edo gehiago- arau edo irizpide, taifa erreinuak. Ondorioz, arauak gomendio bihurtzen dira eta gomendio horiek norberak bihurtzen ditu arau. Nireak, lekeitiar eskola berrikoak, azalduko dizkizuet.

Lehen mandamentu edo printzipio honetan dute jatorria beste arau guztiek: Transkribatzen duzun testua zeinahi ere izan maitatu eta errespetatuko duzu, onean eta txarrean... baina neurriak gaintu barik helburua ez baita faksimila lortzea. Horregatik garaian garaiko grafia eta ortografia arauak jarraitu nahi -eta ezin batzuetan- izan ditut, nire ustez, garaia hobeto islatzen dutelako: cedillak, s eta t bi-koitzak..., maiuskula eta minuskulen edota azentuazioaren (tildeen) erabilera aldrebesak aurkituko dituzue. Hala ere, noizbehinka, testuak hobeto ulertzeko -hau da lehen mandamentu horri gerizpe egiten dion printzipio bakarra- puntu, puntu eta aparte eta halakoak gehitu dizkiet testuei. Gainerakoan ohiko arauak erabili ditut: ... edo (...) etenak adierazteko; (?) dudazko hitzentzat, (sic) autorearen ustezko hanka sartzeentzat, (ulergaitza) irakurri ezin izan dudanean (ulertezinak, apurtuak, zikinduak...) etab. Profesionalek barka nazatela.

Edozelan ere originalekin alderatzeko aukera duzue webguneak kontsultatuz. Hor behean dituzue behin eta berriro erabili ditudanak.

Sancho el Sabio Fundazioa sanchoelsabio.eus
Artxibo eta Fototeka (dokumentuak...)
EMD Euskal Memoria Digitala (liburuak...)
euskalmemoriadigitala.eus

Liburuklik liburuklik.euskadi.eus
Bilaketa orokorra
Prentsa historikoko bilatzailea

Biblioteca Nacional de España bne.es
Biblioteca Digital Hispánica (liburuak...)
bibliotecadigitalhispanica.bne.es
Hemeroteca Digital (egunkari...)
hemerotecadigital.bne.es



Eskerrak emateko momentua baino hoberik ez dago liburu amaiezina amaitu duzun seinale delako. Etxekoekin hasiko naiz badaezpada; zor-tea izan dut etxean debaldeko sekretaria baitut, emazte Sorkun eta euskal filologoa den anaia Ibon euskarari astindu ederra emateko prest. Etxekotzat ditut txikitako lagun Markues eta Txitxi txistelariak, artista bikainak, pertsona hobeak. Jon Zubiaurren Kurrieko marrazkiren bat ere berrerabili dut. Azala marrazteko etorkizun handiko euskal-italiar bat fitxatu dut, Ibai Silicato, proiektua nazioartekoa izan dadin. Artistak dira baita Kiñukako Jon & Jon ere. Askotan goraiatu dut horien lana. Gazteek ez dute sinistuko, baina ez dago dena Sarean eskegita; José María Arriola notarioaren liburutegian -a zelako liburutegia!- egon gara, argazkiak atera ditugu, primeran hartu gaitu. Juan Manu Ugartetxearen laguntza ere izan dut, kasik artikulua bat oparitu dit. Mila esker bie. Eta (ia) amaitzeko Udal agintariak esker-tu behar ditut azken finean honelako proiektuak ezin direlako aurrera atera horien babes eta laguntza barik. Azkeneko utzi ditut Maite Garamendi eta Iñaki Goiogana kurikeruak; mila gutxi dira, miloi bat esker bie. Hirurok gara Kurik eta Kresaletik aurrera atera nahian gabiltzanak, D'Artagnan falta zaigu.

Beste barik, zer kontaktu behar dut ba hurrengo liburutetan, on egin!



Sorkunderi
eta Ainhoari